

# Ainhoaren aitorpena

por Patxi Zubizarreta

**A**mona Paula maitagarria zen, Aurpegia, intxaur azal baten antzekoa zeukan, lehorra eta dena zimurrez bete; begiak, berriz, beti bustirik egoten ziren, bi putzu urdin balira bezala.

Titikitan, amonak berarekin eramaten ninduen paseatzera, eta ikastolako lagun bategin batekin topo eginez gero, nik honela esaten nion.

—Kaixo, hay nire amona Paula da, nire lagunik onena.

Horregatik, pena handia hartu nuen amonaren begiak betirako itxi zirenean. Orduan nireak egon ziren busti-bustirik, nireak eta nire aitona Tomasena.

Amona hil zenetik aitona oso gutxi irteten zen etxetik, eta irteten zenean kanposantura joan-etorri bat besterik ez zuen egiten. Baina lehen bai ibiltzen zela, basozaina zenean. Orduan Iratiko animaliak eta zuhaitzak zaintzen aritzen zen: amuarrainak, kattagorriak, pagoak, haritzak... Amona joan zitzaigunetik, ordea, aitona oso ilun eta triste geratu zen, Orhi mendia ekaitza denean bezala.

Behin batez, aitonari kanposanturaino lagundu nahi izan nion. Hasieran marmarka erantzun zidan; seguru nik ez baitzuen nahi nik negarrez ikus nezan. Baina azkenean eskutik lotu eta abiatu egin ginen. Han geundela, bera amonaren hilobia garbitzen ari zen bitartean, nik adar handi batzuk ikusi nituen ate inguruan.

—Aitona, orein bat ikusi dut! —oihukatu nuen.

Eta aitonak, azkar jira emanda, honela erantzun zidan:

—Bai, Gorria da. Noizik eta behin gu agurtzera jaisten da.

Orduan nik, jakinminez, orein haren istorioa kontatzeko eskatu nion. Eta halaxe joan ginen kanposantuko bazter batera, eta eguzkitan eserita, aitona kontu-kontari hasi zitzaidan.

Negu latz eta zakar batean gertatu omen zen. Galduta, hotzak hilik eta goseak akabatzen, orein gazte bat jaitsi zen herrira. Aiton-amonak negu partean herrian egoten ziren, goarda etxean bi metro elur eta gehiago egoten baitzen. Eta elurtea pasa artean behintzat, oreinkumea beraiekin hartzea erabaki zuten. Aitonak kontatu zidanez, herriko haurrak egunero joaten zitzaizkion belar eta izei hostoekin, eta denen artean Gorria izena jarri zioten.

Hurrengo udaberrian, Gorria aitonaren ibilbideetan agertzen hasi zen, eta azkenean Gorria ezkerretara eta txakurra eskuinetara eramaten zituen, eta txakurrak ongi asko zekien oreinari ez ziola ausiki egin behar. Goizero, eguneko jira egitera zihoanean, aitonak txistu egiten zion, edo bestela bere izenez deitu, Gorria!, eta oreina berehala agertzen zen pago artetik.

—Eta ikusi duzun oreina, orain ni bezala zahartuta, orduko oreinkume huraxe da, baina orain ez daukat ba-

sora itzuli eta berarekin ibiltzerik, ezinezkoa da... —bukatu zuen, eta Goriarentzat izei hosto batzuk txoko batean utzita, etxerantz abiatu ginen. Artean ez zekien Iratira itzuliko ginenik, eta are guttiago nola itzuliko ginen.

Harez gero, aitona gauero tapatzera etortzen zitzaidanean, nik Goriaren istorioak kontatzeko erregutzen nion, eta berak oreinarenak ezezik lapurrenak eta kontrabandistenak ere kontatzen zizkidan. Gau batez, ordea, aitona normalean baino urduiago ikusi nuen.

—Ainhoa, uste dut berriro ikusi ahal izango dudala Iratiko oihana, eta oso goitik gainera. Eta zu, etorriko al zinateke nirekin? —galdetu zidan irribarretsu.

Nik hasieran ez nion ulertu, baina berehala argitu zidan oraingo basozainak proposatu ziona. Nonbait, Irati gainean hegalaldiak egiten hasiak ziren, basoa hobeki zaintzeko asmotan, eta aitona hegalaldietan parte hartzera gonbidatu zuten, bere esperientzia oso baliagarria izan zitekeelako, Bestalde, agindu ziotenez, aurreneko hegalaldian biok joan ahal izango ginen, eta horrek sekulako poza ematen zidan.

Handik hiru bat astetara, etxeko atariraino jeep bat etorri zen. Aitona eta biok hartu eta Iruñera eramantzen gintuzten, gure lehendabiziko hegalaldia egitera. Abioneta ttiki batean abiatu ginen, eta Iratira iristean aitona aho





JOSÉ M<sup>a</sup> LAVARELLO.

zabalik geratu zen —ezin bada aho bete hortz esan, oso hortz gutti baitzeuzkan—, eta esku batekin antejuei eusten zien, oihana hobeki ikusteagatik edo, eta bestearekin nire estutzen zuen, eta nik eskua izerditan neukan eta... Orhi mendia baino gorago hegan egin genuen, aiton-amonak bizi izan ziren aterpea ikusi genuen, baita orein batzuk ere jauzika —Gorria agian?—, eta erre-kastoak, eta erreka handiak, eta urtegia, eta oihan osoa...

Basozain berriari laguntzen hasi zenetik, aitona osasuntsu eta berritsuago ikusten nuen. Gau batez, ni tapatzera etorrita, aitorten hau egin zidan ahopeka: «Ba al dakizu, Ainhoa? Abionetan ibiltzen naizenetik oso pozik nago berriro oihana ikusi ahal izaten dudalako eta, batez ere, amona Paularengandik gertuago sentitzen naizelako». Eta handik gutxira, akaso horregatik esango zuen amak aitona txori txiki bat bezala gelditu zela, eta oso urrutira joan zela, Irati baino

askoz urrunago, amona Paularengana, nire amona eta nire lagunik onena.

Gaur ni bakar-bakarrik joan naiz kanposantura. Larri nengoen nire sekretua aiton-amonei kontatzeko: «Handitzen naizenean, ni ere Iratiko oihantzaina izango naiz». Eta une horretan begiak busti-bustirik jarri zaizkit, eta ezin bada ikusi han inguruan orein adarrak bazebilan ala ez.